

BALOREZKO PROPOSAMENA

Health W (wristband) pultsera bezeroaren osasuna neurtzeko eskumuturreko berezia da. Hainbat behar asetzeko gaitasuna du. Besteak beste, ondorengo funtzioak (zerbitzuak) eskaintzen ditu:

- Bezeroaren osasunaren inguruko informazioa gordetzen du, hau da, bezeroak dituen gaixotasun kronikoen inguruko informazioa pultseran gorde daiteke, edozein momentuan edonork eskuragarri izan dezan informazio hori. Bezeroaren mediku-historiala bezala funtzionatuko luke, kasu honetan.
- Bezeroaren osasun egoeraren inguruko zenbait informazio detektatu dezake: tenperatura (barruan daukan termomentroari esker), tentsioa (eskumuturrekoa estutuz) eta pulsazioak.
- Gainera, bluetoothen bidez pultsera mugikorrera konektatuta dago eta eskumuturrekoan informazioa pultseran gordetzeaz gain, egunero bezeroaren informazioa eguneratzen da, osasun informe bat sortuz.
- Alarma edo abisu sistema bat dauka. Osasun aldagaien bat aldatuz gero, pultserak soinu bat igortzen du bezeroari gertatzen denaz ohartaraziz.. Esate baterako, tentsio baxua duen pertsona batek, tentsio beherakada bat sufrituz gero, produktuak txistu bat igorri egiten du, bezeroa jakinaren gainean ezarriz zorabialdia sahiesteko.
- Osasun Zerbitzuekin kontaktuan jartzeko aukera ematen du, hau da, larrialdi zenbakira deitzeko aukera eskaintzen du.

Nola funtzionatzen du?

- Pultserak hiru botoi ditu: bi eskuinean eta bestea ezkerrean. Eskuinaldean bi daude, bat bestearen gainean eta goikoa sakatuz gero, zuri buruzko informazio agertuko da, pertsona guztientzat eskuragarria dena (noski zuk aukeratzen duzu bertan, guztientzat eskuragarri atera ahal diren datuak). Eskuinaldeko beheko botoia sakatzen badute, informazio pertsonalagoa aterako da, informazio guztia, eta hori soilik eskuragarria izango da mediku eta eskumuturrekoaren jabearentzat. Informazio hori eskuratu ahal izateko, pasahitza bat dago, bakarrik Health-aren nagusiek eta medikuek dakitenak. Egoera larri baten aurrean egonez gero, eskerreko botoia sakatu behar da, horrela, zuzenean larrialdietara deitzen duzu, kokatuta zauden lekura anbulantzia bat bidaliz, pultserak GPSa daukalako. Medikuek zuri buruzko informazioa izanda, botika zehatz batzuk errezetatu ditzate eta larrialdietako kasuetan modu seguru eta azkar batean erantzun ahal izango dute.
- Pulsera detektatzen ez duen informazioa bertan gorde ahal izateko eskumuturrekoa pendrive sarrera bat du, ordenagailura konektatzeko.

- Pultsera apurtuz gero seguritate kopia bat dauka eta informazio guztia beste pultsera batera erraz pasatu dezakegu.

Espanian 35.000 pertsona baino gehiagok bihotz-biriken gelditzea sufritzen dituzte kalean eta bakarrik %5-%10 bizirik irauten dute. Gure pultserarekin tasa hori handituko da eta pertsona horien %70 bizirik jarraituko lukete.

Ehuneko hori handitzea posiblea da gure pultserarekin zure burua larrialdi batean ikusten baldin baduzulako, eskerraldean dagoen botoia sakatu eta zuzenean ambulanzia bidaliko dutelako zuk zauden lekura (eskumuturrekoak GPS bat baitauka).

<https://www.diariomedico.com/salud/mas-de-30-000-personas-mueren-al-ano-en-espana-por-un-paro-cardiaco.html>

Hauek dira Health W ren bereizgarriak:

- Hainbat lekutan erosteko aukera izango dute bezeroek, hala nola, farmazietan, edota gure interneteko webgunean (<https://hernandezandoni.wixsite.com/healthwristband>).
- Arazo ekonomikoak izanez gero, gure pultsera ordaintzeko epeko ordainketa egin daiteke.
- Kolore eta tamaina ezberdineko pultserak eskainiko ditugu eta zure eskumuturreko pertsonala diseinatzeko aukera izango zenuke ere.
- Hori gutxi balitz, material ekologikoz eginak egongo dira, ingurumen arazoak sahiesteko.
- Sistema xumea dauka, horrela adin guztietako pertsonak inolako arazorik gabe erabili ahal dute.

Ondorioz, pultsera hau erregistro eta jarraipen-teknologikoa da, onura asko ekartzen dituena. Izan ere, eskumuturreko honek erabiltzaileen bizitzak aurrera atera ditzazke. Gainera, bizitza lasai eta hobeagoa ziurtatzen die gaixotasunak dituzten pertsonari, haien egoeren inguruko kontrol eguneratu bat eramatea ahalbidetuz.

Pultsera hau merkaturatzea erabaki dugu, horrelako laguntzarik eskaintzen dituen eskumuturrik saldu ez delako jadanik. Gainera, gaixotasunak dituzten pertsonari laguntzeko asmoa dugunez, honelako idea irtenbide izugarria iruditu zaigu.

